

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Belladona.**  
Belladona.  
GP Producciones.  
Iraupena: 49'20".  
10 euro.

## Pop-rocka komertziala ez denean

ROCK GARAIKIDE GISA deskribatu dute GP Producciones diskoetxe beteranoko arduradunek Donostialdeko Belladona taldearen musika eskaintza. Ez dut nik esango hirukotea garaikidea ez denik, kantak gaur egungoak baitira; baina esango nuke aldi berean poperoak, rockero klasikoak, komertzialak eta esperimentazioaren aldekoak direla. Oinarrian pop-rocka egiten dute, komertziala dirudiena, gaztelaniaz abes-tutakoa, baina sardexka pixka bat sartu-

ta azkar azaleratzen dira The Police, Television, The Clash, Santana, indie familia, bluesa, jazz, funkya, baita urru-nean 713avo Amor taldea ere. Musikari oso finak dira, eta kantaren ñabardurak erabat landuta dituzte, baita Javi Fermín-en metafora eta iruditeria dotorea ere. Dotoreziaz eta irudimenez egindako debuta, zorritzarrez esku gutxitara hel-duko dena.

[www.myspace.com/mundobelladona](http://www.myspace.com/mundobelladona)

### Javi Fermín eta Emmanuel Losio - Belladona

## «Ibilian-ibilian motxila bete dugu, baina ez dago zamarik, esperientziek aberastu gaituztelako»

“Hainbeste ibili ostean, hasi naiz antzematen helburua dela bidaiaz gozatea besterik gabe”. Urte asko daramazue musikaren alorrean borrokan ondorio horretara heltzeko?

**Javi Fermín:** Bai, guztiok urte asko daramatzagu proiektu ugarran lanean. Motxila beteta dugu, baina ez dago zamarik. Esperientzia guztiek aberastu gaituzte.

**Emmanuel Losio:** Ez dut inoiz borroka gisa ikusi, beharra da. Musikak bizitza beste modu batera ikusten lagun zaitzake.

**Maldito.** Zaila da Euskal Herrian gaztelaniazko pop-rocka eginez lekua egitea?

**J.F.:** Ez dut uste hizkuntzak eta lekuak halako garrantzia dutenik, lana gogor egin eta zurean erabat sinesten baduzu. Bestalde, guztientzako lekua eta entzuleak daudela uste dut.



Poperoegiak batzuentzat eta ñabardura eta aldaketa gehiegi poperoentzat. Hala da?

**E.L.:** Hori da proiektu honetara batzeko gehien erakarri ninduen. Gainera, jazz musikaria naizen heinean aberasgarria egiten zait beste estilo batzuetako ukituak gehitzea. Azken finean, garrantzitsuena, etiketatik at, lana ondo egin eta zugandik gehien ematea da.

Hitzetan metafora oso lan-duak aurkitu ditut.

**J.F.:** Garrantzi handia ematen diet. Behin eta berriro idazten ditut, erabat gustura gelditu arte. Helburua da sentsazio zehatz batzuk transmititzea. Abesti batean hitz gutxi daude eta hori doinu bati lotu behar zaio, baina batzuetan lor daiteke.

Mota oso desberdineko kantak batu dituzue eta, besteak beste, “Dímelo”-k

harritu nau: Television eta Policeren ukituak, latindar leloa eta Santanaren antzeko gitarrak. Nola jaio zen?

**J.F.:** Abesti horri maitasun handia diot; diskoko pieza zaharretarikoa da eta denboraren kabuz ondo borobiltzea lortu dugula uste dut.

**E.L.:** Agertokian asko mugiarazten nauen kantua da. Oso beta da eta indar handia dauka, bai. ■

